

Arkeologia eta gaur egungo gizartea

Arkeologia publikoa eta Otxandioko kasu arkeologiko zehatza

Gradu amaierako lana, historia gradua.

Geografia, historiaurrea eta arkeologia saila.

Jakintza-arloa: Arkeologia.

Euskal Herriko Unibertsitatea

2021-2022 ikasturtea.

Egilea: Xixili Bengoetxea Llona

Tutorea: Belen Bengoetxea Rementeria

LABURPENA

Gradu amaierako lan honetan, arkeologia eta gaur egungo gizartea izan ditut hizpide. Honek nahitaez gai bat jorrazteko beharrezana sortu dit; Arkeologia publikoa. Korrante nahiko berria den arren, aldaketa handia suposatzen du orain arte arkeologiaz ulertu den horretatik, izan ere, arkeologiak, gizarte zehatz batekin izan dezakeen harremanaz eta honek duen betebeharrak dibulgatiboaz dihardu.

Lana bi zati nagusitan banatuta dago, lehena marko teoriko batek osatzen du, zeinetan, ondare arkeologikoa eta gizarteak arkeologiarekin duen harremana azaltzen diren, autore ezberdinetatik jasotako iritzi eta teorizazioak oinarri hartuta. Bigarren zatian, Otxandioko herriaren kasu zehatza erabili dut eta lanari alde praktikoa ematera bidean, inkesta batzuk egin ditut, bertatik ondorio batzuk ateraz.

Lan honetan beraz, marko teorikoa arkeologia publikoaren eta honen sorreran oinarritu nahi izan dut, arkeologiaren garapenaren jarraipen logiko modura azalduta. Horretarako, lehenik, arkeologia eta ondare arkeologikoa definitu ditut, orokortasunetik, apurka ikerketa objektua zehazteko. Beharrezkoa iruditu zait, zentzu horretan, arkeologiaren eta gizartearen arteko harremanari ere leku egitea, gizartearen eta honen joeren analisi egoki batek, hau da, errealitatearen analisi egoki batek, erabaki eta proposamen egokiak hartzea suposa dezakeelako, teoria oinarri hartuta, praktikara igarotzeko modua, hain zuzen ere. Bukatzeko, arkeologia publikoaren sorreraren eta honen garapena aipatu dut, garrantzitsua iruditzen zitzaidan, joera berri hau nondik eta ze asmorekin sortu diren jakitea.

Aipatutako bigarren zatiari dagokionez, Otxandioko indusketa eta lan arkeologiko ezberdinak sintetizatu ditut, herria testuinguruan jarri eta bertan zer egin den ezagutarazteko. Honek ahalbidetu dit gerora, Plaza Nagusian berriki egin diren indusketetan, inkesta batzuk aurrera eramatea, bistarien iritziak jasotzea eta bertatik abiatuta grafiko batzuk osatzea. Inkesta hauek oso aberasgarriak izan dira, perfilak eta jendearen pertzepzioa ulertzerako orduan eta bertatik abiatuta, esparru honetako problematika orokorrak ulertu eta ondorio edo proposamen zehatz batzuk egiteko.

AURKIBIDEA:

1.Sarrera.....	4
2. Helburuak eta metodologia	6
3. Analisisirako kontzeptu batzuk	
3. 1. Arkeologia.....	7
3.2. Ondare arkeologikoa.....	9
4.Arkeologia eta gizartearen arteko harremana.....	11
5. Arkeologia publikoa.....	12
6. Otxandioko hiribilduko kasua.....	16
6. 1. Testuinguratze historikoa.....	17
6. 2. Otxandion egindako indusketak eta emaitzak.....	17
6.3. Plaza Nagusiko bisita gidatuak.....	21
7. Inkesta.....	23
7.1. Inkestaren formatua eta adierazleen azalpena.....	24
7.2. Datuen analisisia eta emaitzak.....	25
8.Ondorio eta proposamen posible batzuk.....	30
9. Bibliografia.....	32
10.Eranskinak.....	35

“Arkeologiaren bitartez badakigu, egia hor kanpoan dagoela, argitasuna hondoan aurkitzen dela, jakinduria ez dagoela lurrazalean. Sakondu beharra dago erantzunak aurkitu eta galdera ikur berriak marrazteko.”
(González et. Ayán, 2018: 429)

1.SARRERA

Sektore batzuen artean, arkeologia, ospe handiko zientzia bezala ezagutzen da eta orokorrean, beste zientzia batzuekin alderatzen badugu, ongi baloratuta dago gizartean. Zerk egiten du ordea, arkeologia hain erakargarri? Jaime Almansak, “Arqueología pública en España” liburuan bi faktore nagusi azaltzen ditu, bata lan arkeologikoa bera eta bestea, arkeologiaren ikerketa objektua; iragana. Hala ere, arkeologiaren gaineko irudi sinplifikatua da gehien zabaldua dagoena, indusketa arkeologikora mugatzen dena, hain zuzen ere (Almansa, 2013: 18).

Gizartean hedaturik dagoen arkeologiaren inguruko iruditegi soziala, beraz, ez da eraginik ez duen elementu errugabea eta inplikazio zuzen batzuk ditu gizartean. Iruditegi sozialean txertaturik ageri dira Indiana Jonesen abenturak eta urregorritzko altxorrak, Egiptoko piramideetako momiak eta fosilak eta ez da kasualitatea, izan ere, horrela jasotzen dugu arkeologia, ia-ia fikziozko hobby baten moduan, zeina soilik lur azpitik objektu baliotsuak azalera ateratzeaz arduratzen den. Aldi berean, arkeologoaren irudia, zikintzen ez den esploratzaile erdi-kolonizatzailearena da.

Nahiz eta komunikabideetan ondareari buruzko albisteak ugariak izan eta ardura bat islatu bere kontserbazio eta erabilera publiko zein didaktikoaren inguruan, errealitatea kontraesankorra bilakatzen da, arkeologoaren figuraren beharrizan publikorik ageri ez denean. Errealitatearen eta fikzioaren arteko talka honek, inplikazio sozio-politiko eta ekonomiko garrantzitsuak izan ditzake, izan ere, arkeologiaren praktika zientifikoa, objektu eta aztarnategien balorizazio eta hauen salmentara murriztera eraman dezake, ikerkuntza prozesu osoa merkatuaren eta etekin ekonomikoaren izenean eginez. Honen ondorioz gerta daitekeena da, finantzazio ekonomikoari dagokionez, inbertsioa, soilik proiektu mediatikoei lortuko dutela eta modu zuzenean eragingo duela beste ikerketa prozesuetan, hauen gehiengo aurrera ateratzea oztopatuz (Carvajal et al. 2011: 9).

Esan bezala, komunikazio bideek, zinemak, literaturak,... eta orokorrean masa kulturaren baitako agente ezberdinak, iritzi publikoaren isla dira baina aldi berean, honen baldintzatzaile

nagusi, eta horregatik, eragin zuzena daukate, negatibo zein positiboa arkeologiaren eta arkeologoaren irudiaren gainean. Baina paradoxa nabarmena ematen da, irudi zinematografikoak izan dezaken oihartzunaren eta egunerokotasunean arkeologiak jasotzen duen atentzioaren artean, izan kudeaketan edo ikerketan, soilik fikziora eta epikotasunera hurbiltzen diren indusketa kasuak lehenesten bait dira askotan (Carvajal et al. 2011, 8). Arkeologiaren irudia, XIX. mendeko erromantizismotik eratorria izan da eta testuinguru zehatz batean sortutako estereotipoak erreproduzitu ditu, irudi hau, egungo errealitate profesionaletik guztiz urrunduta ageri bada ere (Almansa, 2013: 22).

Zentzu horretan, arkeologia, objektuen aurkikuntzara sinplifikatzen da jarduera bezala, eta honen gaineko fetitxizazio nabarmen bat ematen da, testuinguruan erreparatu gabe, objektuari berari, modu isolatuan zentzua eta balioa emanaz eta berau merkantilizatuz. Horren adibide erakusgarri eta garaikideetako bat izan daiteke *History chanelen* emititzen den “El precio de la historia” deituriko telebista reality estatubatuar ezaguna, zeinetan, material arkeologiko zein ondasun historiko ezberdinei, besteak beste, telebista programa batek berezkoa duen espektakuluaz, balio bat ematen zaien, gero merkatuan berriro saldu edo enkantean emateko. Espainiar estatuan mota honetako programarik ez dagoen arren, esango nuke, badaudela kasu asko zeinetan ondasun arkeologiko ezberdinak interes pribatuetan erortzen diren, antigoaleko objektuen azoketan kasu.

Hala ere kontuan hartzekoa da errealitatea eta fikzioa askotan ez direla hain urruti mantentzen, eta elkar-elikatu egiten direla, baina argi dagoena da, egunerokotasunean aurkitzen ditugun irudi segida horiek, gizarteak arkeologiarekiko duen irudia moldarazten dutela. Honen aurrean, arkeologiaren eta gaur egungo gizartearen arteko harremana zehaztasun handiz ikertu beharra dago, orain arte erabilitako “publiko orokorra” bezelako kontzeptu orohartzaile bezain ezeraginkorrek alboratuz eta errealitatearen analisi zehatz batetik abiatuta, arkeologiaren publiko ezberdinak ezagutu eta honen aurrean proposamen bat egiteko asmoz. Noranzko horretan, arkeologia publikoak, arkeologiaren eta ondare arkeologikoaren gizarteratzean, eta hedapenean apostua egiten du baina ez soilik horretan, gizartearen eta arkeologiaren arteko harreman konplexuak ezagutu, ikertu eta ulertzeko baliabideak zabaltzen ditu eta horrek bere gain hartzen du, dibulgazioa, diziplinaren oinarritzko elementutako baten modura, izan ere, dibulgazioa beharrezkoa da arkeologiak diziplina moduan iraun dezan, zubiak eraikitzen bait ditu gizartearen eta arkeologiaren artean (Almansa 2013: 33).

Gizarteko kapa guztietara heltzeko helbururarekin, arkeologia publikoak ez du gizartea historiara hurbiltzen, baizik eta gizartea historiaren eraikuntzaren parte egiten du, izan ere horretara dator lan honen zergatia bera. Lan honen helburua, arkeologia publikoaren inguruko gerturapen bat egitea izango da. Horretarako, lehenik eta behin, arkeologia eta ondare arkeologikoa definitu ditut, kontzeptu ireki modura. Analisisirako kontzeptu hauek, ikerketa objektura hurbiltzeko asmoa izan dute, izan ere, arkeologiak gizartearekiko duen harremanaz eta inplikazioez hausnartzeko balioko digu. Kontzeptualizazio horien emaitza edo aplikazio logiko modura, arkeologia publikoa jorratuko dut, gizartearen inplikazioa oinarri hartuta, ondare arkeologikoaren zabalpenerako proposamena egiten duen korrante arkeologikoa, hain zuzen ere.

Bestalde, Otxandioko hiribilduko kasu zehatzaren bidez, herriko testuinguru historikoaren sintesi bat egin dut eta bertan egin diren interbentzio arkeologikoen eta ikerketen sarrera historiko bat. Lanaren alderdi praktikoari dagokionez, interesgarria iruditu zait, hasieran aipatutako kontzeptuen lurreratze bat egitea inkesta batzuen bitartez. Inkesta hauek, Otxandion (Bizkaia) egin ditut eta ondarearen zein honen zabalpenaren inguruko gaiak izan ditut izpide. Jendeak erantzun duen horretatik abiatuta, grafiko batzuk egin ditut, emaitzak bisualago egin eta horien interpretaziotik abiatuta, ondorio batzuk ateratzeko asmoz.

2. HELBURUAK ETA METODOLOGIA

Gradu amaierako lan hau helburu batzuen baitan gorpuzten da eta helburu hauek erdisteko metodologia zehatz bat eraman dut aurrera. Lan honen helburu nagusia arkeologia publikoa ze hutsunetatik sortu zen eta arkeologiaren baitan, ze aukera posible zabaltzen dituen jakitera ematea izango bada ere, beste helburu gehigarri batzuk izango ditu:

1. Autore ezberdinek diotena kontrastatu eta erabilgarria egingo zaidan marko teorikoa zehaztea.
2. Otxandioko Plaza Nagusian aurrera eramandako proiektu arkeologikoa aurkeztea, oinarrizko testuinguratze bat eginez.
3. Otxandioko herritarren eta bisita gidatuetan interesa erakutsi duten pertsonen pertzepzioa ezagutzea.
4. Bisitarien perfilak ezberdintzea eta haiek emandako iritzien bitartez, ondorioak ateratzea, marko teorikoan landutako ideiak loturak aurkituz.

Metodologiari edo helburu hauek betetzeko hartu ditudan bideei dagokienez:

1. Irakurketa ezberdinak burutu ditut, ideia eta kontzeptuak ulertu eta gaiaren inguruan ikuspegi osatu bat izateko.
2. Inkestaren diseinuaz arduratu naiz, lortu nahi nuen horri ahalik eta erabilgarriena edo lanari ekarpen gehien egingo zion formatua eratuz.
3. Emaitzak alderatu eta bertatik ondorioak ateratzeko grafikoak egin ditut.
4. Argazkiak eta kartelak erabili ditut, lana aberastu eta bisualagoa egiteko.

Arkeologia publikoa erlatiboki korrante berria da arkeologiaren baitan eta honek zailtasun bat suposa zezakeela pentsatuta, ez dut hasieratik analisi espazioa mugatu, baina bereiziki, Espainian argitaratutako lanak erabili izan ditut, horien artean erabili ditudan autoreetako batzuk izango dira J. Almansa, J. Vincent, M. Querol eta A. González.

Inkestei dagokienez, Otxandio (Bizkaia) herria aukeratu dut, nigan dituen inplikazio emozionalengatik eta berriki indusketa arkeologiko bat eraman delako aurrera bertan. Horretaz gain, interesgarria iruditu zitzaidan, inkestak, aztarnategian bertan egitearen ideia, ikerketa eta indusketaren espazioari garrantzia emanez eta baita, ikerketa objektua bere jatorrizko testuinguruan aztertzeke.

.3. ANALISIRAKO KONTZEPTU BATZUK

3.1. Arkeologia

Arkeologia, praktikan jartzen den zientzia modura ulertu beharra dugu, aztarnategi, material eta hondakinen analisi eta honi aplikatutako jakintzaren bitartez, objektu izaeratik, identitate historiko izatera bilakatuko dituen zientzia¹ modura, hain zuzen ere (Querol 2010: 204). XIX. mende osoan zehar, arkeologiaren helburu nagusia aztarnategi berrien ezagutza eta indusketa izan da, jakintza historikoa metatzeko asmoz eta museo zein kolekzio pribatuak hornitzeko helburuarekin.

Azken hogeitamar urtetan ordea, hainbat faktore direla medio, egoerak aldaketa bat jasan eta ondare arkeologikoak duen garrantzia historikoaz kontzientzia handiagoa dagoela esan dezakegu bai gizartean eta baita administrazio eskudunetan, kausa horietariko batzuk aipatzen dira Renfrew eta Bahn-en “Arqueología” lanean; Alde batetik, bigarren mundu gerraz geroztik, Europa osoan martxan jarritako proiektu urbanistiko eta makroeraikuntzek,

¹Hainbat izan dira arkeologiaren izaera zientifikoaren gaineko eztabaidak. Epistemologia postmodernoko zientzia «objektibo» bat ezinezkoa dela frogatu du, eta erakutsi du testuen edo erregistro arkeologikoaren interpretazioa beti gure iragan historikoak baldintzatzen duela, guregan jasotako tradizioen sedimentazioak eta gure orainak. Bestela esanda, behaketa ezin da behatzailearengandik banandu eta, beraz, ez dago egia objektiborik (Quirós 2013: 14).

ondare arkeologikoa babesteko beharra azaleratu zuten, testuinguru horretan prebentziozko arkeologiak (obra pribatu zein publiko baten aurrez, aztarnategiaren inguruko ezagutza gordetzeko egiten dena) garrantzia nabaria hartu zuen, gerora, ikerketa esparruak zabaltzea eta aztarnategiak multzoan aztertzeko aukera emango zuelarik. Honek, zientzia arkeologikoaren papera dibertsifikatu zuen, zeren eta ondare arkeologikoaren kudeatzaile zuzen bilakatuko dituen arkeologoak, suntsitze arriskuan dauden aztarnategien identifikazioan, balorizazioan eta kontserbazioan parte hartuko dutenak bilakatuko dira (Querol, 2010: 214). Bestetik, Europako inperio kolonialen desagertzeak, nazio-estatu berrien eraikuntzak eta komunitate indigenen identitate kulturalaren aldarrikapenak, erro historikoak aurkitzeko eta iragan arkeologikoa berreskuratzeko behar bat azaleratu zuten, arkeologiaren praktika zientifikoak paper zentrala hartu zuelarik bertan. Bukatzeko, turismo kulturalaren hazkundera aipatu beharra dugu, orokorrean, gizartearen aldetik, arkeologiaren interes handiagotze baten ondorio bezala baina baita interes ekonomiko handia eragiten duen esparru modura non, praktika arkeologikoa, interes ekonomikoen menpe, sektore batzuentzako negozioarako esparru bilatzen den (Renfrew et. Bahn 2005: 128) .

Aipatutako horrengatik esan daiteke, arkeologia, jarduera tekniko-profesional batean eraldatu dela, baina modu berean, diziplina zientifiko bat izaten jarraitzen duela. Normalean, arkeologiaren bi esparru hauek modu bereiztuan ulertzen dira, kontrako kontzeptu gisa interpretatu direlarik, bi testuinguru ezberdin eratuz bai praktikarako eta ondorioz, baita eztabaida teorikorako ere. Zentzu horretan, diziplina honen baitako komunitateak bere burua bi arlotan bereizteko duen joera nahiko argigarria zaigu; arkeologo gehienak ikerketaren arloan edo kudeaketaren arloan auto-pertzibitzen bait dira, diziplinaren ulerkera honek dituen muga zientifikoak agerian utziz (Vincent, 2007: 333). Praktika arkeologikoaren ulerkera bereiztu hau, Max Weberrek ezarritako “teknika” eta “zientziaren” dikotomiatik² eratortzen da.

Aipatu bezala, arkeologiak, gizarte post-industrialaren testuinguruko praktika sozial moduan, iraganaren inguruko jakintza produzitzeko diziplina zientifiko huts bat izateari utzi dio, balioa (politiko-morala, ekonomikoa,...) sortzeko hainbat prozesutan parte hartzeko. Gainera, finantzaketa-beharrek geroz eta beharrezkoagoa egiten dute prozesu zientifikoaren beraren zsbalorizazio ekonomikoa, zeina, industria kulturalera bideratutako edukien produkzio

² Arkeologiaren baitako joera honek, ikerketa-arkeologiaren autonomia defendatu eta arkeologia publikoarekiko duen ezberdintasuna indartzen du, zentzu honetan ondorio negatiboak izan ditzazke arkeologia publikoaren garapenean.

prozesu batean eraldatzen den (Vincent, 2007: 332). Arkeologiak erantzukizun sozial horien mailan egoteko duen modua bere helburu zientifiko hutsak lortzen diren neurriaren araberakoa da. Beraz, arkeologiaren alderdi zientifiko-metodologikoen eta egungo testuinguru sozialean betetzen duen zereginaren arteko harremanen eredu konplexuaren aurrean aurkitzen gara (Vincent 2007:32).

Orainaldia hiru modu desberdinetan zeharkatzen duen zientzia soziala dela esan dezakegu; alde batetik, erregistro arkeologikoa produzitzeko tresna modura, teoria sozial zehatz batzuetatik abiatuta, interpretazioak eskainiz ezagutza historikoa eraikitzeke diziplina gisa; ondarea eraiki eta kudeatzeko tresna gisa, gauzei esanahia emanez eta historiaren materialtasunaren inguruko gatazkak ebatziz; eta gure gizartea aztertzeke tresna kritiko gisa, memoria eraikiz, gure orainaren eta gure iraganaren arteko harremana berreraikiz (Quirós 2013: 12).

Arkeologiari buruzko teoria eta hausnarketa oso garrantzitsuak diren bigarren esparrua kontakizun arkeologikoaren eraikuntza baldintzatzen duten gizarte-prozesuak ulertzea da. XXI. mendeko korrante postmodernoren ondorioz, XX. mendeko teoria sozialean berebiziko eragina izan zuen zientzia neutralaren mitoa erori da eta zientzia kapitalistak aplikatzeko orientazioak eta testuinguruak zehazten dituzten logika sozialak eta politikoak agerian utzi ditu. Zentzu berean, arkeologia, errealitatea hautemateko eta eraikitzeke oinarrizko tresna gisa, eremu pribilegiatua izan da identitate-esparru indibidual zein kolektiboak eraikitzeke (ibid: 14).

Teoria horietarako eztabaida-eremu bat eskaintzen duen heinean, arkeologiak modu nabarmenean esku hartzen du gaur egungo eztabaida ideologikoetan, eta garatzen den testuinguruetako gizarte-gatazketan sartzen da. Instantzia legitimatzaile edo kritiko gisa jardun dezake gizarte-egoera zehatzei dagokienez, identitate-gatazketatik hasi eta gizarteratzeko modu berrietaraino (Vincent 2007:336).

3.2. Ondare arkeologikoa

Ondarea, XXI. mendeko arkeologiaren produktua dela esan dezakegu autonomasiaz, hau da, gizarte batek memoriaren eta ahanzturaren gainean egiten duen kudeaketaren materializazio bezala uler daiteke, orainaldiko praktika bezala. Ondare arkeologikoaren baitan, kultur ondasun higiezin eta higigarriak izango ditugu, garaiko gizartean funtziorik ez duten ondasunak izango dira, aintzina ekoitzi, erabili eta ondoren alde batera utzi ziren materialak.

Hori dela eta, ondasun arkeologikoa ez da soilik sozialki “baliotsu” bezala ulertzen den hori izango, ondare arkeologikoa zaborrean edo hondakinean zein jauregi eta altxorretan oinarritu daiteke eta ikuspegi arkeologikotik, ikerketa objektu biek izango dute “balio” berbera (Querol 2010: 204).

Beraz, arkeologiak ez du soilik erregistro arkeologikoa sortzen baita ondare arkeologikoa ere eta honek garamatza, esparru publiko, politiko, etikora eta diziplina honen baitako elementu funtsezkoenera; jakintzaren sozializaziora, hain zuzen ere.

Ondarea, gizakien eta ondasunen arteko harremana dela onartzeak, inplikazio eta dimentsio etikoetara eramaten gaitu nahiatez eta ez soilik aspektu teknikora. Elementu bat ondare bezala onartua izan dadin gizarte batean, legitimizazio sozial baten beharra dauka eta hau ez da gatazka ideologikorik gabe ematen, izan ere, publikoan bezala, ez dago ondare bakar bat baizik eta ondare ezberdin ugari. Honi jarraiki, elementu materialak eta inmaterialak beharrezkoak dira zenbait gauzei dimentsio emozionala eman eta ondare bihur daitezen (González et. Ayán 2018: 439).

Bigarren mundu gerraz geroztik, mendebaldeko gizartearen baitan, ondare kulturalaren eta iragan historikoaren inguruko interesa nabarmen piztu zen, momentuko ongizate estatuaren eraikuntzak eta ondoriozko kontsumo gizartearen gorakadak eredu soziopolitikoaren egonkortu zuelarik. Balore eta jokabide ezberdineko generazio berriek, kontsumo eredu soziokultural berri bat ekarri zuten, ondare historikoaren gaineko interes eta eskaria handiagotuz. Iada garai honetan, marko legalak ez dira ondare arkeologikoaren kontserbazio eta ikerketara mugatuko eta honen balorizazio eta sozializazioan sakonduko dute (González et. Ayán 2018: 440).

Hegoaldeko herrialdeen integrazioak Europan, hainbat laguntza ekonomiko ekarri zituen nekazal eremu deprimietan eta testuinguru honetan, ondare arkeologikoa oinarritzko baliabide bat bilakatu zen, ondasun ekonomikoan eraldatzeko asmoarekin. Beste diziplina zientifiko batzuen kontrara, arkeologiak bere proiektzio soziala aurkitu zuen 90. hamarkada honetan, arkeologoak, ondarearen kudeatzaile bilakatu.

Kritikak ere egin izan dira ondare arkeologikoak egun betetzen duen funtzioaz edo are gehiago, honen kudeaketari ematen zaion zentzuaz. Izan ere, ondare arkeologikoak per se, balio kultural bat dauka eta hau, jakintza produzitzeko gaitasunean datza. Baina egungo testuinguruan, balio kulturala, ondarearen merkantilizazioarekin estuki lotuta ageri zaigu, ondare kulturala merkantzia bezala eraldatzearen bitartez eta etekin ekonomikoak ateratzeko

asmotan, arkeologia politikoki instrumentalizatzen delarik, diskurtso eta izaera zehatz bat izango duen masa kulturaren instituzio bat gehiago bilakatuz.

“Espektakuluaren arkeologia” aipatzen du Ruiz Zapaterok bere lanean, publiko oso kultu eta murriztera bideratzen diren erakusketa edo eskaintzak aipatzen ditu, hartzaileen aurre-jakintza handia suposatzen dutenak. Kasu hauetan, ez da fokua jartzen a priori erakusketa bat bisitatzeko interesik ez duten horietan, eta ez da hau lortzeko erakargarriak izan daitezen erraminta eta baliabidetan pentsatzen. Modu horretan, turistaren figura bilakatzen da politika arkeologikoen hartzaile nagusia, diskurtso historiko “neutroak” eta pentsamendu bakarraren ideia indartuz. Askorentzat, industria kulturalaren garapenak, arkeologoak, ondarearen ideologo bilakatzen ditu, iraganaren tribializazioaren eta gaitasun kritikoa anulatzen duten aisi-eskaintzaren erantzule. Baina arkeologiaren merkantilizazioaren kritika ez da zertan kultura eta ondarearen gozatzearen mespretxutik eratorri behar, hala ere, mahaigaineratu beharreko galderetako bat izan daiteke ea ondarearen balorizazioak herritarrengan ikuspuntu kritiko bat garatzea ekarri duen edo soilik iraganaren tribializazioan sakontzea eta merkatuaren interesak bermatzeko modu bilakatu den (González et. Ayán 2018:441).

4. ARKEOLOGIA ETA GIZARTEAREN ARTEKO HARREMANA

Esan bezala, garrantzitsua da arkeologiaren eta gizartearen arteko harremanak zehaztasunez aztertzea eta hauen erradiografia zuzen bat egitea. Termino analitiko okerrak eta orain arte inertziak birproduzitu diren tendentziak alde batera utzita, arkeologiaren baitan aldaketa erreal bat suposatu dezaketen praktika zientifikoan sakonduz. Arkeologoak, ikertzen diren iraganeko gizartearen eta orainaldiko zein etorkizuneko arteko bitartekariak dira eta horren ondorioz, ikerketa objektua ezin daiteke soilik iraganera mugatu (Ruiz Zapatero 2012: 35).

Aipatu moduan, gizartearen baitako kontzientziaren garapen batek, dibulgazioaren beharrezko mahaigaineratu du, publiko ezberdinak ezagutu eta definitzeko asmoz. Izan ere, arazoa ez da “jendeak” ez duela arkeologia ezagutzen baizik eta orain arte, publiko bakarraren ideia indartzeaz gain, ez dela esfortzu errealik egin publiko tipologia anitzak definitzerako orduan. Gizartearen gehiengoaren heterogenitatea eta hauek arkeologiaren diziplinara sarbidea izateko aukera zein baldintza materialak kontuan hartu beharrez, arkeologiaren publikorik eta murriztena eta heltzeko errazenera, hau da, espezialistetara (historialariak, arkeologoak, kolekzionistak, historia eta arkeologian zaletuak,...) mugatu da dibulgazio oro. Problematika hau gainditzea, ez da arkeologiaren diziplinaren betebeharrak

bezala aitortu eta honek zuzenean galarazi du diziplinaren gaineko ikuspegi publikoa (Ruiz 2012:37).

Zentzu honetan, arkeologiak aurrera begira dituen erronkei dagokionez, iraganaren kosifikazioa eta objektu arkeologikoen fetixizazioa gainditzea eta publiko ezberdinetara heltzeko helburuarekin, iragana “gizatiartu” beharra dagoela aldarrikatzen dute zenbaitek, orokorrean, pertsoneri eta jendeari buruzko iragan batean sakontzea. Arkeologoak edo edukian “espezialistak” ez diren horiengatik arkeologia nola ikusten den jakiteko, ikuspegi berri bat eraiki beharra dago, arkeologia herrikoia eta gertukoago baten alde egingo duena eta pertsona ororengana heltzeko gaitasuna izango duena.

5. ARKEOLOGIA PUBLIKOA

Aipatu bezala, arkeologia, gauzen diziplina da, espazio eta denbora ezberdinetan materialtasuna aztertzen duen zientzia. Azken hamarkadetan, aldaketa handiak izan ditu eta eraldaketa horiek sakonki eragiten diete praktika arkeologikoaren baldintzei eta praktika hori garatzen den gizartearekiko harremani. Modu honetan, diziplinaren identitate krisi bat garatuko da, alde batetik arkeologia, jakintzaren produkziara bideratutako diziplina zientifikoa izango delako baina bestetik, gizarte garaikideetan, praktika tekno-profesional baten forma hartuko duelako, “ondare arkeologikoa” deiturikoa produzitzeko eta kudeatzeko betebeharra izango bait du (Vicent 2007: 327).

Arkeologiak bide luzea egin du diziplina zientifiko modura, publikoarekiko duen ardura onartu duen arte. Horrela, XIX. mendeko bigarren erdian emango zen arkeologiaren instituzionalizazio akademikoa, museo eta unibertsitateetan hazten zen elite intelektual batek bultzatuta. Izan ere, instituzionalizazio honek, Estatu-nazio burgesak legitimizatzeko aukera eman zuen, hezkuntzaren bidez, erredaktatutako ikasliburu eta artikuluko zientifiko bidez eta baita, garai honetan hain ezagunak diren museo nazionalen bitartez. Ikerketa guztiak akademiara bideratuta zeuden, publiko eruditoak jasotzen zuen informazioa eta ikerketa zientifikoa, hiritar-nazionalistak hezi eta formatzeko pentsatuta zeuden, nazio burgesa ideologikoki indartzeko, hain zuzen ere. Beste modu batera esanda, jakintza historiko-arkeologiko guztia, aristokrata eta adituen zirkuluetan gelditzen zen, jakintzaren pribilegioa betiketuz eta elite intelektual hau, herritarrei modu paternalista batean zuzentzea eraginez. (González Ruibal 2018: 416)

Bigarren mundu gerraz geroztik eta ongizate estatuaren eraikuntzarekin, baldintza material eta ideologiko berriak eman ziren arkeologia, masa komunikabide berrietan integratzeko. Hala ere, eredu publikoago bateranzko jauzia 1970 urtean eman zen, testuinguru anglosaxoian, hemen kokatu dezakegu arkeologia publikoaren sorrera, hain zuzen ere. Garai honetan, Britania Handian, gobernu laboristek hezkuntza eta formakuntza programa ugari bultzatu zituzten, arkeologiari ateak ireki zitzaizkion unibertsitate esparruan eta inklusio sozialerako herraminta ere bilakatu zen, lehen aldiz, kudeaketa arkeologikoan, publikoaren esku-hartze zuzenago bat eman zen (González et. Ayán 2018: 417). Honek ordea bere mugak erakutsi zituen, museologia berriak eta publikoari irekita zeuden eremu arkeologiko bisitagarrien eskaintzak gora egin bazuen ere, eskaintzen zen narratiba itxia zen eta publiko oso mugatu eta zehatz batek kontsumitzen zuen.

1980 eta 1990 hamarkadetan zehar, erronka berri bat planteatu zen; arkeologia eta publikoa integratzea, hau da, bi aspektu hauek harremanean ulertzea eta biak batera uztartzeko plan propio bat eratzea. Horretarako arkeologiaren publiko edo hartzailea (zentzu aktibo batean ulertuta) gizarteko sektore ezberdinetara hedatu beharra zegoen, eta ikerketak partehartze maila altuagoak izan behar zituela ebatzi zen. Momentu honetan soilik uler daiteke, WAC (World Archeological Congress) delakoaren sorrera 1985-1986 urteetan zehar. Kongresu honetan, agenda arkeologiko posible bat mahaigaineratu zen, zeinak, erdigunean jartzen zuen, kudeaketa, politika, ideologia, kolonialismo, arkeologia eta gizartearen inguruko eztabaiden beharrezkotasuna. Horrela, edukiz batetzen da arkeologia publikoaren zentzua, hemendik aurrera definitzen den moduan ulertzen bait dugu gaur egun, arkeologia publikoa.

90. hamarkadan, beste faktore batzuen eragina ere ezin ukatu daiteke arkeologiaren “demokratizazio” prozesuan, hala nola, teoria postprozesualen eta erlatibismo kulturalaren korrontek, zeinak hainbat exigentzia etiko plazaratuko dituen esparru kultural eta sozialetan, besteak beste. Horretaz gain, garai honetan ematen den internetaren eta sare sozialen zabalpenak ondare kulturalaren gaineko interesa areagotzea ekarri zuen (eskuragarria egin bait zen, hein handi batean, gizarte kapa zabalago batentzat).

Esan daiteke beraz, arkeologiak izandako bilakaera historikoak eramanez, arkeologia publikoaren beharrezkotasuna mahaigaineratuz.

Arkeologiak, askotan, harreman zuzena dauka espazio publikoarekin, izan ere, indusketa arkeologikoen espazioa kalea da. “Publikoaren” kontzeptualizazioak ordea, beste adiera batzuk hartzen ditu normalean, kontzeptua espazio itxiekin eta audientzia pasiboarekin harremanduz. Publikoaren esanahia edukiz bete nahi badugu eta arkeologiaren baitan, zentzua izatea nahi badugu, interesgarria da “gizarteari bere osotasunean eragiten diona” bezalako definizioak mahaigaineratzea. Yannis Hamilakisek dioenaren arabera, eremu arkeologikoak muga perfektua dira, konfrontazio eta gatazkarako kontaktu-eremu modura baina baita diskurtso etnografiko berriak moldatu eta elkarlanerako, hala nola, elkarrizketarako espazioak sortzeko. Hau adibidez, oso agerikoa da, arkeologia garaikideko kasu askotan non, biolentzia, genozidio, gerra zibil eta diktadura testuinguruetan, ez den nahikoa izaten iragana ikertzearekin eta iraganarekiko diskurtso interesatuei aurre egitea suposatzen duen kasu askotan (González et. Ayán 2018: 425).

Honen adibide praktiko modura ulertu dezakegu komunitatearen arkeologia, duela hamarkada batzuk goiti, garrantzi handia bereganatzen ari den praktika arkeologikoa dela esan daiteke, gehienbat Erresuma Batuan eta EEBBtan esanguratsua bilakatzen dabil honen zabalkuntza. Komunitatearen arkeologia, modu zuzenean eta iniziatiba ezberdinen bitartez, ondare prozesuetan komunitate bat inplikatzean datza, komunitate lokaletan, bertako ondarearen ikerkuntza eta honen sustapenean inplikatzea, hain zuzen ere.

Arkeologia komunitarioaren kontzeptua, “herriaren arkeologia herriarentzat” bezala landu da, batzuetan publiko orokorra soilik informazioaren hartzalea izanik (ondare-guneetako bisitari gisa edo ekintza praktiko ezberdinetan parte hartuz) eta bestetan, arkeologo zaleak eta bolondresak historialaritzat edo ikertzailetzat hartuz, hauek diskurtso akademikoari ekarpena egin eta inplikazio zuzenagoa lortzeko asmoz. Horregatik, arkeologia komunitarioa deritzona, herrialde bakoitzean modu ezberdinetan garatu da, tokiko tradizio, errealitate ekonomiko edo legediaren arabera (Moshenka 2017: 16).

Komunitatearen arkeologia, arkeologia publikoaren antzera, ikerketa eta praktika esparru berria da, helburu bezala, arkeologia gehiengoarengana hurbiltzeko apustua egiten duena. Mundu osoan zehar, arkeologo komunitarioek, biztanleria eta sektore ezberdinekin egiten dute lan, metodo, baliabide eta marko kontzeptual anitzak erabilia (Moshenka 2017: 14). Publikoaren artean bereizketa bat egingo bagenu, aurretik aipatu bezala, hartzaleen gehiengoa, piramidearen oinarria osatzen duena da, gehiengo hau “betiko ahaztua” bezala izendatzen du Ruiz Zapaterok, izan ere, ondareari buruzko jakintzaren transmisio katetik

baztertzen denez, gehiengo honek orokorrean ez du ondare arkeologikoarekiko bat-bateko interesa erakutsiko (Ruiz 2012: 37). Justuki, hemen aurkitzen da erronka nagusia, hartzaileen gehiengoa osatzen duten hauentzat arkeologia eskuragarri egitea, horren parte egin eta inplikazio zuzena bultzatzea. Indusketak, aztarnategiak zein ikerkuntza prozesuak aurrera eramatea bezain garrantzitsua da, bertako komunitate lokalak, proiektuaren parte egitea, izan ere, soilik modu horretan emango dira baldintzak jendartearengan interesa piztu eta kontzientziazio kolektiboan aurrepausuak emateko.

Euskal Herriko komunitate arkeologiaren adibideetako bat, Amurrioko (Araba) udalerrriaren baitan kokatzen den San Pedro mendian egindako indusketa arkeologikoa izan daiteke. Josu Santamarina, Xurxo Ayán eta Xabier Herrerok burututako kanpaina arkeologikoa hau, 2016an eraman zen aurrera, Espainiar guda zibileko errepublikarren eraikuntza defentsibo batzuk ikertzeko asmoz. Indusketaz gain, ondarearen sozializazio kanpaina garrantzitsua burutu zuten, komunitate arkeologiaren proposamen praktiko bat. Ikerketa honen objektua paisaia beliko bat zen, oraindik ere testuinguru garaikide batean, memoriaren lubaki bat izaten jarraitzen zuen paisaia gatazkatsu bat.

Arkeologoen aipatu bezala, “bertako komunitateak eta guda zibileko ondare honetan interesa erakusten duten kolektiboak proiektu arkeologiko osoan integratzeko hautua egin zuten. Gizarteratze prozesu integral hori komunikazio, hedapen eta dibulgazio lanekin batera gauzatu zen”(Santamarina et al. 2017: 126). San Pedro mendiko eraikuntza defentsiboaren proiektuak bost helburu nagusi ezarri zituen; 1. Araba iparraldeko hutsune arkeologikoa betetzea (izan ere zonalde honetan ez da ondare mota honi buruzko interbentzio arkeologikorik egin), 2. Kontzientziazioan sakontzea, bai inguruko elkarrekin memoria historikoa berreskuratzearen garrantzia azpimarratuz eta baita zaletuen artean, arkeologia diziplina zientifiko bezala gizarteratuz, 3. Erregistro arkeologiko zehatz bat osatzea, azken teknologien aplikazioaren bitartez, 4. Memoriaren etnografia bat aurrera eramatea, hau da, ondarete prozesuen analisi bat; alde batetik, ezarritako helburuen, interesen eta elkarte lokalen pertzepzioaren analisi bat eginez eta bestetik, materialitate ezberdinen produkzio testuinguruak ikertuz, 5. Proiektu arkeologiko integral bat aurrera eramatea, irabazleen memoria goستن duen eremu gatazkatsu bat izatetik, herritar ororentzat irekia eta eskuragarri egongo den eta lan zientifikoan oinarrituko den espazio bat izatera igaroko dena (Santamarina et al. 2017: 128). Gainera, aztarnategi honek, bazeukan berezitasun bat, abeltzaintza jarduerak eramaten ziren bertan eta honek, abeltzainekin, inori kalte egingo ez

zion akordio batera heltzea suposatu zuen, horrela ere, bertako komunitate lokalak inplikatu eta inguruko jarduera ezberdinak balorean jarri.

San Pedro mendiko indusketek iraun zuten bi asteetan zehar, aztarnategira hurbiltzen zen orori, bisita gidatu formatuko aurkezpen bat egin zitzaion, honen ondorioz, material didaktiko batzuk diseinatu ziren, gerora, bisita gidatu zikloak antolatzeke balio izan zutenak. Bisita hauek, publiko ezberdinarekin jarri ziren martxan; bizilagunak, elkarteak, langileak,... horren erakusle da, adibidez, eskualdeko enpresa bateko berrogeigarren urteurrenean, langile komitearekin batera, bisita bat antolatu zela aztarnategira edo indusketak burutu aurretik, zonalde horretako hainbat herritan (Amurrio, Uzkiain, Izarra, Arrastaria,...) “barferentziak” antolatu zirela, hauek hitzaldi informal batzuk izango liritezke, tabernetan antolatu ohi direnak eta helburu moduan, edukia modu erlaxatuago eta atsegina batean helaraztea dutenak, publiko ezberdinak kontutan hartuz (Santamarina et al. 2017:143).

Praktikan jarritako proposamen hauek, beste hainbat lekutan ere jarri izan dira martxan aurretiaz eta Erresuma Batuetatik edo Estatu Batuetatik esportatu dira Euskal Herriko hainbat proiektu arkeologikotara. Guzti hauek, arkeologia publikoak eskaintzen dituen baliabideetako batzuk izan daitezke, baina aurretik aipatu bezala, ezin daitezke eredu bat modu mekanikoan herrialde batetik beste batera lekualdatu, aurrez ez bada lan egingo den testuingurua ikertu eta finean, publikoari egokituko zaion proiektu bat aurkezten.

6. OTXANDIOKO HIRIBILDUKO KASUA

Herri honek nigan duen karga emozionalarengatik aukeratu dut Otxandio, batetik, nire bizilekua eta herria izanik interesa neukan bertan aurrera eramandako ikerkuntza arkeologikoei buruz gehiago jakiteko eta bestetik, berriki, herriko plazan Belen Bengoetxeak zuzendutako indusketa eta ondoriozko ikerkuntza fasea burutu delako. Indusketa honek, eragin handia izan du herritarrengan eta hau aitzaki hartuta, antolatutako bisita gidatuak erabili ditut, bisitariei ondareari eta arkeologiari buruz galdetzeko eta gradu amaierako lan honi bere aspektu praktikoagoa emateko.

Hori dela eta, lehenik, herriaren testuinguratze historiko bat egingo dut, bertan egindako indusketa arkeologikoen eta hauen emaitzen inguruko laburpen batekin eta bukatzeko, nik burututako inkestan jarri dut fokua. Lanaren zati praktikoa bi azpi-ataletan banatuz

6.1 Testuinguratze historiko bat

Inkesten emaitzetan sartu aurretik, beharrezkoa ikusi dut Otxandio bere testuinguru historikoan kokatzea, baita bertan egin diren interbentzio arkeologikoen berri ematea. Horrela hobeto ulertuko delakoan Plaza Nagusian aurrera eramandako 3. faseko indusketaren eragina.

Otxandio, Bizkaiko lurraldearen hegoaldeko muturrean dago, Gorbeia eta Anboto mendilerroen arteko pasabide batean, eremu estrategiko batean. Ordokiaren eta Kantauriko kostaldearen artean lehendik bide bat zegoenez, hiribildua, korapilo garrantzitsua izango litzateke Erdi Aroko komunikazio bideen baitan (Martínez Rueda, 1992: 15-23).


Otxandioko Hiriaren fundazio urtea ezin badaiteke zehaztu ere, ez baita jatorriari buruzko dokumenturik kontserbatu, foruak 1304. urtean berretsi zituztela badakigu eta egile gehienak bat datoz esleipen hori 1254. urtean kokatzerako orduan. Salerosteko gaien eta pertsonen joan-etorriak ziurtatzeko, bermatzeko eta errazteko bultzatu zen hiribildu berria, erregistro arkeologikoen arabera, aldez aurreko ezarkuntza baten inguruan sortu zena.

Otxandioko hirigintzak “villa caminera” deitu izan denaren ezaugarri nabarmenak ditu, ardatz nagusi argi batekin, bideari eta Artekale kaleari dagokiona. Herriak duen problematika historiko nabarmena ordea, informazio eta ebidentzia falta dela medio, hiribilduaren Erdi Aroko berezko nukleoa zein den zehazteko zailtasuna da. Otxandion, beste herri askoren kontrara, ez da hiribilduaren muga espazioa zehazten duen harresirik aurkitu eta dokumentazioa zentzu honetan, oso urria da. Azterketa batzuk bat datoz hiria Elizaren eta Andikona plazaren arteko atalera mugatzeko orduan. Nolanahi ere, hegoalderantz (Uribarrena) eta iparralderantz (Urigoiena) dauden luzapen bietan hiri zaharraren arrastoak hautematen dira (Pereda et. Cajigas 2002: 53)

6. 2. Otxandion egindako indusketak eta emaitzak

Arkeologia publikoak beraz, zentzurik badu, ikerketa prozesuaren baitan, publikoaren integrazio osoan eta jakintzaren zabalpenean izango du. Hori dela eta, gradu amaierako lan honi bere alderdi praktikoagoa emate aldera, 2021. urtean Otxandion egindako indusketa arkeologikoak baliatu nahi izan ditut analisirako objektu modura. Belen Bengoetxea arkeologoak zuzendutako indusketa hauek, gaur egun Otxandioko plaza kokatzen den espazioan egin izan dira hainbat hilabetez, herriko plaza osatzen duen frontoiaren aldean hesituta mantenduz lehenik eta plaza osatzen duen espazioa, ondoren. Indusketa, ikerketa eta emaitzen sozializazio ziklo bat eraman izan da aurrera.

Azken urteetan zenbait esku-hartze egin izan dira Otxandioko eremu arkeologikoan, izan ere, babes adierazpen ezberdinen bitartez zehazten da hirigune historikoa. Artekale kaleko eraikin gehienak babespen maila oinarrizkoa duten bitartean, erdi mailako babaepsen maila dute horiz margotutakoek (frontoiak kasu) eta babespen maila berezia (Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian Monumentu Multzoa kategoriarekin jasota): udaletxea, Santa Marina eliza eta bolatokiak.



1. Mapa: Otxandioko hiribildu historikoaren babespen-mailen mapa (Otxandioko udala, 2006).

Jarduera guztiak prebentziozko arkeologiaren barruan integratuta daude; hau da, proiektatutako obraren baten aurretik egin dira, hiriko zorupea eta substratu arkeologikoa suntsituko zituelakoan. Esku hartzeko planteatzen den espazioa Otxandioko hiribilduaren barruan dago, esparru feudal baten barruan, garaiko botere-gune berrian, non, indar nagusiak desorekatu eta botere-sare berri bat sortzen diren. Plaza Nagusian egindako esku-hartze arkeologikoetan egindako aurkikuntzek, aldaketa-prozesu honekin erlazioa izango dutelarik (Arkeoikuska 2021: 5).

Testuinguru honetan kokatu ditzazkegu, Otxandioko hirigune historikoan egindako indusketa eta interbentzio arkeologiko hauek, Otxandioko hirigunearen ikerketa historiko-arkeologikoa salbuespen modura hartuta.

Izena	Urtea	Emaitzak
Artekale 22	1997	Otxandioko hiribilduko ekonomia industrialaren oinarria ³ ziren sutegi-etxe bat izan zenaren hondakinak.
Otxandioko hirigunearen ikerketa historiko-arkeologikoa	2002	Hirigintzaren historiak planteatzen dituen arazoak konpondu eta eraikin, orube eta espazio publiko bakoitzean babes neurri arkeologiko egokiak zehaztu ziren
Propano gasa banatzeko sarea	2006	Kale eta katoi gehienak eraldatu egin zituzten ur eta saneamendurako sare berriak instalatzeko. Honek lurrazpian izandako eragina nabaria izan zen.
Urigoiena, Artekale eta Uribarrena kaleak	2007	Aro garaikidean osatutako hainbat maila estratigrafiko erregistratu ziren
Artekale 14	2008	Interbentzioaren emaitzek ez dute interesik historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik.
Harategi 9-11	2009	Orubearen fase ezberdinak bereizi ziren. Forjatze lanekin lotutako egiturak aurkitu ziren fase ezberdinetan.
Andikonako plaza eta 5. orubea	2012	Otxandioko hiribilduko mugak zehazteko asmoarekin, Andikona plazako okupazioaldiak bereizi ziren.
Plaza Nagusia (I. fasea)	2016	Plaza Nagusiaren zorupearen ezaugarri nagusiak ezagutu, zundaketa ezberdinak egin.
Santa Marina eliza	2019	Giza hondakinak eta ehorzketa bat aurkitu ziren, elizaren funtzioaren inguruko galdera ikur berriak zabaldu zirelarik.
Plaza Nagusia (II. fasea)	2019	Erdi aroan okupatutako bizitegi gunea, iturri publikoa eta aro modernoko sutegi tailerra aukitu ziren.
Plaza Nagusia (III. fasea)	2021	Behe erdi aroko aldiari lotutako egiturak eta zanja defentsiboa.

1. Taula. Iturria: Arkeoikuska

³ Aipatu beharra dago, Otxandiok historikoki burdinaren transformazioarekin izan duen lotura estua, herriaren ekonomiaren oinarri izan delarik aintzinako sutegi edo haize-oletatik, gaur egungo fabriketararte.

Plaza Nagusiari dagokionez, hiru kanpaina ezberdin burutu dira, bata 2016an, bigarrena 2019an eta hirugarrena eta azkena, 2021.ean. Hori dela eta, komenigarria da kanpaina bakoitzaren emaitzak apur bat laburtzea.

Bigarren fasean egindako indusketan, 2019an, harri naturalean, sakonera hondoratuko egitura bat aurkitu zen, zurezko zutoinekin indartua, eta haren zuloak dokumentatu ahal izan ziren. 2021ean Plaza Nagusian egindako indusketak eta honen ondoren egin den obra, Otxandioko plaza zaharberritzeko hirugarren faseari dagokio (ibid:9-11).

Aurreko atalean aipatu bezala, 2021. urtean zehar, Otxandioko Plaza Nagusiaren hirugarren eta azken zaharberritze fasea egin da. Hori dela eta, interbentzio prebentibo gisa, Belen Bengoetxeak zuzendutako proiektu arkeologikoa eraman da aurrera. Kanpaina arkeologiko honetan zehar, Erdi Aroari dagozkion hainbat eraikuntza fase hauteman dira. Lehena, aurreko kanpainetan iada bereizi ziren paldoak egokitzeko zulo ezberdinak, XI.-XII. mendeetako okupazio baten emaitza. Plazako espazioaren zati garrantzitsua hartuko dute eta hauen kopuru eta ezaugarriek, espazioaren okupazio intentsibo bat eman zela jakinarazten dute, behin Otxandioren fundazioa emanda zegoelarik XI-XII. mendeetan. Ondoren, XIII. mendeko lehen erdialdean hiribildua fundatu eta gero, aldaketa nabarmenak emango dira herrixkan, horren artean, espazio horrek gehienbat artisausatzerekin lotutako bigarren mailako ekintzetarako balioko zuena (Bengoetxea 2021:8).



1. Irudia: Plaza Nagusiko aztarnategia. Indusketako zutoin zuloak eta hondoratutako egitura.

Hurrengo okupazio faseak, Behe Erdi Aroari erantzuten dio, garai honetan inguruaren aldaketa sakona emango da, izan ere, aurretik aipatutako dorrea defendatzeko egin zen zangaren ebidentziak aurkitu dira XIV.- XV. mendeetan zehar kokatu daitezkenak, bandoen guden testuinguru liskartsuan. Dokumentatu dena beraz, dorrearen defentsa egituren zati esanguratsu bat izan da, 3m-ko sakonera eta 5m-ko zabalera duena eta buztin naturalean induskatuta dagoena.

Aurkitutako zanga defentsiboa, ez zen Otxandioko hirigunea defendatzeko sortu baizik eta Plaza Nagusiaren ipar-mendebaldean kokatzen zen Behe Erdi Aroko dorretxe bat defendatzeko. Hipotesi hau babesteko, geografikoki gertu dauden eta eraikuntza aldetik, oso antzekoak diren beste dorre batzuekin (Aramaioko Barajuen dorrea edo Arrigorriagako Agirre dorrea) eta Lope García de Salazarren idatzietan aipatzen diren datuekin alderatu izan da. Izan ere, XVII. mendekoak diren hainbat dokumentutan ere, Otxandioko Plazan kokatzen zen dorre baten inguruan hitz egiten da (ibid.).

Hipotesi honek beraz, Abendañotarren dorre defentsibo-militar bat izan zela defendatzen du, funtzio sinboliko handia beteko zuena; familia banderizo baten boterearen erakusgarria izango zen, bere aurkarien zein Otxandioko hiritarren aurrean. XVII. mendeko momenturen batean, dorrearen anulazioa eman zen eta Plaza Nagusiak gaur egun duen itxura hartuz joan zen (Bengoetxea 2021: 6).

6. 3. Plaza Nagusiko bisita gidatuak

2022ko kanpaina arkeologiko honen azken fasean, Otxandioko Udalak eta talde arkeologiko guztiak bultzatuta, aztarnategian jasotako informazioaren hedapen eta sozializazio egun batzuk eraman ziren aurrera. Orain arte aipatu bezala, lan arkeologikoaren beste eginbehar bat izanik, herritar eta bisitariekin batera ondare arkeologikoaren babes zein hedapena, praktikara eraman zen, herritarrak prozesu horren parte eginez eta indusketen berri emanez.



2. Irudia: Bisita gidatuak aztarnategian

Publiko orokorrari eta Otxandioko herri eskolako umeei bideratutako bisita gidatuak bereizi ziren, lehenak Otsaileko hiru asteburu ezberdinetan ospatu ziren eta bigarrenen kasuan, astean zehar. Horretaz gainera, aztarnategiko hesian bertan, panel informatibo ezberdinak eskegi ziren, bisitetarako baliabide gehigarri modura eta lehen hezkuntzako 3. eta 5. mailako ikasleei egokitutako material didaktikoa sortu zen.

Otxandioko hiribilduko Plaza Nagusiko indusketara
BISITA GIDATUAK
VISITAS GUIADAS 2022
 a la excavación de la Plaza Nagusia de Otxandio

Otsailak 6 febrero
 (DOMEKA / DOMINGO):
 Lehen txanda / Primer turno (euskaraz): 11:00
 Bigarren txanda / Segundo turno (castellano): 12:00

Otsailak 13 febrero
 (DOMEKA / DOMINGO):
 Lehen txanda / Primer turno (euskaraz): 11:00
 Bigarren txanda / Segundo turno (castellano): 12:00

Otsailak 20 febrero
 (DOMEKA / DOMINGO):
 Lehen txanda / Primer turno (euskaraz): 11:00
 Bigarren txanda / Segundo turno (euskaraz): 12:00

Hizaria / Presentación:
 Belén Bengoetxea Rementería
 UPV/EHUko ikasleak eta indusketaren zuzendaria
 Profesora de la UPV/EHU y directora de la excavación

Bisitaren iraupena / Duración de la visita: 40 min.

Bisita-txanda bakoitzari gehienez 25 pertsona egongo dira. Beharretokoa da aitzaz aurretik izena ematea, helbido honetara mezu elektronikoa bat bidaliz: itxarortz@otxandio.eus edo: 945 45 00 20 telefono zombaira deituz. Izena ematen den momentuan eguna eta txanda zehaztu behar da. Bisita txanda guzokiko botze gero, itxarortz-zerrenda bat irekiko da, eskaintzen arabera, botzen bat emozionatuz.

En cada turno de visitas habrá un máximo de 25 personas. Es necesario apuntarse previamente enviando un mensaje de correo electrónico a la siguiente dirección: itxarortz@otxandio.eus indicando el día y el turno al que se quiere acudir o llamando al teléfono 945 45 00 20. Si se completan todos los turnos de visitas, se abrirá una lista de espera en previsión de que se pueda organizar alguna más, en función de la demanda.

ELIBRO JURISDICCIA GOBIERNO VASCO
OTXANDIO
OTXANDIO
GIPY-PAC
 Universidad del País Vasco
 Euzko Herriko Unibertsitatea

Aipatu beharra dago, Otxandioko Plaza Nagusiko hiru kanpainetan zehar egin izan direla bisita gidatuak eta modu positiboan baloratzen direla egitasmo hauek, herrian zeresan handia eman eta orokorrean, interesa pizten dutelarik.

3. Irudia: Bisita gidatuetako kartela

7. INKESTA

Esan bezala, Otxandion egindako indusketen ondoren, ikertutakoaren dibulgazio eta sozializatzeko lanak eraman izan dira aurrera, egindako ekintzen artean, besteak beste, bisita gidatuak antolatu dira, indusketaren nondik norakoak azaldu eta herritarrei ikerketaren berri emateko. Bisita gidatuaren hartzailentzat, inkesta batzuk prestatu nituen, arestian esan bezala, ondare historikoa gai zentralizat hartuta.

Inkestak oso baliagarriak izan daitezke eta ikerketa prozesu batean, modu zuzen eta indibidualean jasotzen bait da informazioa, hala ere, galderen nolakotasunak, hauek egiteko moduak eta gehienbat erantzun itxiekien planteatutako inkestek bere mugak erakusten dituzte, izan ere, kasu askotan, erantzunak baldintzatu ditzazkete eta ondorioz, pertzepzio indibidualei balioa kendu diezaioke. Gainera, inkestak baliatuz ondorioak ateratzerako orduan ere, zuhurtziaz jokatu beharra dago, ezin bait dugu ahaztu, lagin mugatu batetik ateratako ondorioak direla (Ruiz Zapatero 2012: 45). Bestetik, inkesta adierazgarrien urgentziaz dihardu Ruiz Zapaterok, lagin handiagoak izango dituen eta hartzailere ororentzat planteatuta egongo direnak, hau da, gizarteko sektore eta kolektibo ezberdinenetara egokituko direnak. Berak dioenaren arabera, idatzizko inkestek edo erantzun itxiko inkestek, askotan, publikoaren “politikoki zuzena” izatearen efektua lortzen dutela eta hori dela eta, interesgarria izan daitekeela modu anonimoan, bisitariari ikuskatze lanak egitea, hau da, bisita gidatuetan, hartzaileren arteko iruzkinak eta inpresioak jasotzea, emaitza batbatekoagoak eta egiazkoagoak izan daitezkelako (ibid: 55).

Hau aitzaki hartuta, indusketen emaitzak herritarren eta interesa zuen ororen artean zabaltzeko asmotan egindako bisita gidatuetarako, inkesta batzuk prestatu nituen, bertan, bisita gidatuaren balorazio batez gain, ondare historikoaren zabalpen edo gizarteratzeren inguruko hainbat galdera proposatu nituen, batzuen fokua Otxandioko herrian jarriz, beste batzuen modu orokorragoan, ondare historikoaren kudeaketan. Arkeologia publikoaren inguruan gabiltzan honetan, beharrezkoa ikusten nuen lanak, publikoaren/herritarren/gizartearen iritzia batzea, nolabait, ideia orokor bat egiteko bada ere, aurretik modu teorikoagoan planteatutako problematikei egiazko ahotsak jartzeko asmoarekin. Horretaz gain, garrantzitsua iruditzen zitzaidan espazio publikoak izan dezaken zeresana mahaigaineratzea, izan ere, iragana espazio jakin batean kokatzen da, eta ikusleak, publikoak edo turistak, testuinguru espezifiko baten barruan berreraiki behar dituen ideia batekin edo batzuekin erlazionatzen ditu modu horretan, espazio zehatz hori bilakatzen da kontakizunaren ardatz.

7.1. Inkestaren formatua eta adierazleen azalpena

Guztira, 130 bat pertsonak parte hartu duten inkesta hauetan, informazio ugari jaso daiteke eta oso baliagarria egin dakiguke, ateratako emaitzen tendentzia orokorrak edo datu interesgarrienak aipatuz.

Inkestaren planteamenduari dagokionez, hiru bloke nagusi banatu ditut; lehen blokea bisita gidatuaren beraren balorazioa egiteko erabili dut, jendearen inpresioak jasotzeko, bigarrena, Otxandioko ondare historikoaren inguruan galdetzeko eta hirugarrena, modu orokorragoan, ondarearen transmisioaren nolakotasunaz galdetzeko. Amaierako zatian, galdera ireki bat planteatu diot hartzaileari, ondare historikoa herritarrei heltzeko moduz. Horretaz gain, bloke bakoitzaren amaieran, espazio bat utzi dut iruzkinentzat, aurretik aipatutako galderen zurruntasuna apur bat hausteko asmoz eta publikoaren iritzi edo iruzkinak modu zuzenagoan jasotzeko.

Inkestaren sarrerari dagokionez, lehenik, adina, lanbidea eta udalerrria bezalako datuak eskatu ditut. Adinaren aldagaiak generazioen arteko ezberdintasun nabarmenik dagoen ikusteko balio dezake, lanbidearen aldagaiak zuzenean zehazten du publikoaren baldintza materialekiko eskuragarritasuna eta beraz, arkeologia publikoak izan beharko luken paperean berresteko informazioa bilakatu daiteke. Hirugarrenik, udalerrria beste aldagai gehigarri bat izan daiteke, “ondare-turismoa” neurtzeko eta baita Otxandioko herritarren artean interesik baden neurtzeko. Datuen analisi eta inkesten emaitzen puntuan, aldagai bakoitzari eskeinitako grafikoak eta hauen emaitzak ageri dira.


Lehen galdera sortan, bisita gidatueta parte hartu duten denek baloratu dute modu positibo batean bisiten egitasmoa eta herriko ondare arkeologikoari eta historiari buruz zerbait berria ikasteko baliagarria egin zaiela aipatu dute “interesgarria, aproposa, arina...” bezalako hitzak erabili dituzte hau deskribatzeko.

Otxandioko ondare historikoari buruzko hurrengo blokean, Otxandioko bisitarien eratzunak hartu ditut kontutan; hauen artean ehuneko zabalena ondare historikoaren kontserbazioari aitortza egiten diote baina hala ere, problematika moduan aipatu daiteke, haietako askok ez dutela Otxandioko ondare historikoa edo inguruan egiten diren indusketa edo interbentzioak ezagutzen. Honek aurretik aipatutako errealitate/fikzio afera dakarkit burura zeinetan, interes erreal bat existitzen den gizartean ondare arkeologikoarekiko baina praktikotasunean hau ez den islatzen, arkeologiak orain arte dibulgaziorako izan duen interes faltaren ondorioz.

Bukatzeko, hirugarren blokean, ondarearen transmisioarako balibideen inguruan galdetzen dut, hau da, zeren bitartez jasotzen duen jendeak ondarea; bisita gidatuen bitartez, proiektu herrikoiaren bitartez, haien kabuz irakurritako testuen bitartez,...gehiengoak, bisita gidatuak eta museoak dituzten transmisio balibide nagusi, honek, instituzio hauek duten garrantzi eta arduraz konturatzeko balio gaitzake.

6.3.2. Datuen analisisa eta emaitzak


Inkestaren lehen aldagaiari dagokionez, hau da, adinari dagokionez, ikus daiteke bisitarien %56,1a 50 urtetik gorako jendeak osatzen duen bitartean, 16-30 urte bitarteko gazteen presentzia oso baxua dela, %1-a, hain zuzen. Honek, adin arrakal izugarria suposatzen du eta arkeologiaren baitako problematika nabari bat gazte sektoreei heltzeko orduan.



1. Grafikoa: Adina

Bigarren grafikoa bisualagoa egite aldera, udalerrak eskualdeka banatu ditut. Kasu honetan oso nabaria da bisitarien gehiengoa, %64,6-a Otxandiokoa dela, datu hau aipagarri bezain positibotzat kontsidera daiteke, izan ere, bisita gidatuek herrian eragina izan dutenaren seinale dira. Otxandioko bisitariez gain, inguruko eskualdeetako jendea ere gerturatu izan da; Durangaldea (%9,4) edo Gasteiz (%11,5) kasu. Aipatzekoa da baita ere, Otxandiotik 50km edo gehiagora kokatzen diren Bilbo Handitik edo Uribe Kosta bezalako eskualdeetatik jendea gerturatu izana Plaza Nagusiko bisita gidatuetara.


Emaitza hauek erakusten dutena zera da; lehenik, garrantzitsua dela industen den herrian bertan emaitzen sozializazioa aurrera eramatea eta bestetik, honek oihartzun positiboa daukala inguruan ondare turismoari dagokionean.



2. Grafikoa: Eskualdea

Bestalde, grafikoaren hirugarren aldagaiari dagokionez, bisitarien lanbideari buruz galdetu dut. Kasu honetan, %67,8a langileak izango dira, %22,2 jubilatuak, %7,8 ikasleak eta %2,2 langabeak. Banaketa honetan, nabaria da bisitarien gehiengoa langilea dela eta berriro ere, hauen kopuruaren eta pertsona gazteen (kasu honetan ikasleen) arteko kopuruaren ezberdintasuna oso nabaria dela aipatu dezakegu.


Hala ere, lanbidearen aldagaia, beste arrazoi bat dela medio interesatzen zait. Lanbidearen bitartez, gizarteko sektore eta soziologia ezberdinak bereiztu daitezke, izan ere, lanbideek eta hauei gizartean egozten zaizkien espezializazio mailak, baldintza material batzuetara edo bestetara sarbidea eman diezakete.



3. Grafikoa: Lanbidea

Hori dela eta banatu ditut 4. grafikoan, goi mailako eta erdi mailako ikasketak dituzten bisitariak. Goi mailako ikasketak dituzten bisitarietatik (%54,1) gehiengoa, irakaskuntzaren arlokoa da edo ingeniariak edo historialariak dira. Hau da, mota honetako eskaintza kulturaletara hurbildu daitekeen publiko “espezializatu” eta beraz, heltzeko publiko errazena izan daiteke. Kontrara, erdi mailako ikasketak suposatzen dituen lanbideak dituzten bisitariak %45,9 dira. Administrazioarekin lotutako lanbideak dituztenak gehiengoa badira ere, metaleko langileak, ostalariak, etxeko langileak,...ere badaude.


Emaitzen harira, garrantzitsua iruditzen zait azpimarratzea, uste nuenaren kontrara, oso publiko anitza hurbildu dela bisita gidatuetara eta honek, gauza bat erakusten duela; inizatiba eta jarduera hauek bide egokia direla eduki historikoa gizarteratzerako orduan. Beharrezkoa dela publikoak informazioa modu zuzenean, didaktikoan, dohainekoan eta aztarnategian bertan jaso ahal izatea.




4. Grafikoa: Ikasketa maila

Hasieran aipatu dudan moduan, inkestaren baitan gehitu dudan azken galdera soltea hurrengo da; ohitura daukazu bisita gidatuetan parte hartzeko edota museoetara joateko (orokorrean)?

Kasu honetan, beharrezkoa iruditu zait banaketa bat egitea. Otxandiokoak diren eta Otxandiokoak ez diren bisitarien artean, gehienbat bisita gidatuak Otxandioko herritarren ohituretan eragina izan duen edo ez baloratu ahal izateko. Emaitza ez da espero bezain nabarmena izan.




5. Grafikoa: Ohitura (Otxandiokoak)



6. Grafikoa: Ohitura (Ez-Otxandiokoak)


Otxandiokoak diren bisitarien artean, %77,4ak museo eta bisita gidatuetara joateko ohitura dauka eta %22,6ak ez. Otxandiokoak ez direnen artean, datuen portzentaiak antzekoak dira %74,4ak baiezkoa eta %25,6ak ezezkoa erantzun duelarik. Datu hauen bereizketan garrantzitsuena, ezezko erantzutenetan aurkitzen da, portzentaia baxua bada ere, esanguratsua delako. Arkeologiaren eta gizartearen arteko harremanaren ikuspuntutik, interesgarria iruditzen zait hausnartzea museo eta bisita gidatuetara joateko ohiturarik ez duten horien artean, zerk eraman dituen, kasu zehatz honetan Otxandioko Plaza Nagusiko bisita gidatuetara. Bereziki Otxandioko herritarren artean, ondoriozta daiteke mota honetako ekimenen bitartez eman dutela lehen pausua bisitarietako askok.

Inkestaren lehen blokeari dagokionez, Gehienbat, bisita gidatuaren balorazioarekin lotutako galderak egin ditut (iraupena, bisitarien interesa, eguna/ ordu egokitasuna, azalpenen argitasuna,...), ez naiz modu sakonean bloke honetan sartu, izan ere, bisitarien balorazio denak onak (%22,9), oso onak edo bikainak (%77,1) izan dira.




7. Grafikoa: Bisita gidatuaren balorazioa

Inkestaren bigarren blokeari dagokionez, Otxandioko ondare historikoaren inguruan galdetu diet bisitariei eta horretarako, Otxandioko biztanleen lagina hartu dut kontuan. Bigarren galdera bloke hau lau galderaz osatuta dago. 8.grafikoan ikusten denez, esan daiteke bisitarien gehiengo handi batek (%43,5 eta %12,9ak) Otxandioko ondare historikoaren eta honen inguruko lanen berri dutela, eta gainera, interesa erakutsi duen %61,3ak, hau ezagutzerako orduan, aukera edo baliabide falta aipatu dute. Galdera hauen erantzunetan beste hutsune bat somatu daiteke, interesa egon badagoenean baina egiten den hori ez denean nahikoa.




8. Grafikoa: Jakintza




9. Grafikoa: Interesa

Oso modu argian ikusi daiteke gainera, arazoa ez datorrela interes falta edo ondare arkeologikoa balioan jartzeko problematika batetik. Izan ere, 10. Grafikoan oso erraz ikusten da hori: kasu honetan, bisitarien %80ak adierazi du, ondare historikoa interesgarria dela eta babestu beharra dagoela eta gainera, herrian egiten diren mota honetako ekintzetan jarrera parte hartzailea erakusi du %70,9ak.




10. Grafikoa: Balioan jartzea




11. Grafikoa: Parte-hartzea

Bukatzeko, hirugarren galdera sorta edo blokeari dagokionez, ondare historikoa ezagutarazteko bideen inguruan galdetu dut. Kasu honetan, hiru aukera nagusi bereizi ditut. Lehenik, erakundeek bultzatutako egitasmoak (museoak, bisita gidatuak,...) izaera


formalagoa eta akademikoagoa duten proiektuak, hain zuzen ere. Bigarrenik interes propioz irakurritako liburuak, testuak artikulua eta azkenik, proiektu herrikoiak (askotan, lehenengoan falta edo hutsune baten ondorioz sortuta). Aipagarria iruditzen zait, proiektu herrikoiek bultzatutako egitasmoen bitartez hainbeste jendek ondare historikoa ezagutzeko bidea izateak. Honek, pentsatzera narama, agian proiektu herrikoetan, gertutasuna eta parte hartzea handiagoak direla publikoaren partetik eta askotan, esan bezala, beharizan edo hutsune batetik eramaten direla aurrera, honek gizartean atxikimendu handiagoa sortu dezakeelarik. Bestalde, ezin dugu aipatu gabe utzi, erakunde ezberdinek antolatutako egitasmoek ere presentzia nabarmena dutela, interes propioz irakurritako testuak bigarren plano batean gelditzen direlarik.



12. Grafikoa: Museoa, bisita gidatuak,...



13. Grafikoa: Interes propioz irakurritakoak



14. Grafikoa: Proiektu herrikoiak

10. ONDORIO ETA PROPOSAMEN POSIBLE BATZUK

Bukatzeko beraz, aipatutako gaiak jorratu ondoren, ondorio eta proposamen posible batzuk ateratzea da nire helburua. Lan osoan zehar aipatu bezala, arkeologiaren pertzepzio soziala eta ikerketa beharrezkoak izango dira edukien eskaintza egoki bat egite aldera. Are gehiago, kultura-turismoaren garapena saihesten duten ikuspegia mantentzeak, herritarrek jakintza eskuratzeko duten interesari kasurik ez egiteak, jakintza espezializatua, akademikoa eta jakituna autobaieztatzeak, guztiona den ondare arkeologikoa interes pribatuetara bideratzeak, etab. gizartearen eta diziplina arkeologikoaren artean dagoen arrakalan are gehiago sakontzen dute (González et. Ayán, 2018: 422) eta horren aurrean, arkeologiaren betebeharra izan behar da, kultura askatasunez eta berdintasunez eskuratzeko eta ondarea, ondasun publiko gisa modu kolektiboan jabetzeko eskubidea aldarrikatzea.

Hala ere, ondarea berreskuratzeko eta turismoa egokitzeko prozesua luzea eta konplexua da, eta hainbat fasetatik igarotzen da: ezagutza (inbentarioa, kokapena, aztarna eta lege-babesa), kontserbazio aktiboa (*in situ* egiturak zaharberritzea eta sendotzea) eta hedapena (musealizazioa, egokitzapena eta ikuspegi publikoaren kudeaketa) (Almansa, 2013:77).

Gaur egun, argi izan behar dugu, ondare arkeologikoaren dibulgazioa, diziplina arkeologikoaren baitan zentrala bihurtu beharra dagoela, izan ere, ezagutzen den hori da, soilik baloreen jarri eta babesten dena eta gizarteak horren ziurtasuna izan dezan, arkeologiak egiten duen hori gizarteratu beharra du. Horretarako, nahitaezkoztat jotzen dut espazio publikoaren erabilera, herritarrek informazioa zuzenean imdusketa eremutik jaso eta ikus dezaten. Izan ere, inkestetan irakurri ahal izan dudana, hori bera da jendeak defendatzen duena “a través de visitas in situ como la realizada hoy”, “horrelako bisitak eginez bide ona dala deritzot”, “la visita de hoy es un ejemplo de llegar el patrimonio histórico a la ciudadanía”,... bezalako esaldiak jaso ditut bisitarien partetik.

Arkeologia publikoak beraz, helburu edo zeremuga argi bat izan behar duela deritzot, horien artean batzuk aipatzearen; publiko ezberdinen inplikazioa, ondarearekin zerikusia daukaten ekintza, praktika eta didaktika ezberdinetan, ondarearen balorearen garrantziaz kontzientzia hedatzea, komunitate lokalak eta hiritarrak, ikerketa prozesuetan integratzea, iraganarekiko manipulazio interesatuari aurre egiteko harrimintak eskaintzea eta honekin lotuta, iragana ikuspuntu kritiko batetik eraikitzen irakastea.

Erronkak ugariak diren arren, aukerak ere asko daude eta uste dut nahitaezkoa dela honetan fokua jartzea, transmisio forma berrietan sakontzea eta komunikazio tresna berriak erabiltzea. Teknologia berriak eta komunikazio kanpaina ezberdinak erabiltzea ikerketa edo indusketa sozilizatzerako orduan, oso beharrezkoa iruditzen zait, gehienbat bizi garen garai beti ere publiko mota ezberdinetara moldatuta eta modu didaktiko batean, indusketatera ate irekiak planteatu eta azalpenak ematea (ordurarte ikertutakoaz, helburuetaz,...), honek, aurretik aipatu bezala, komunitate lokalak inplikatzeko, ondare arkeologikoa gizarteratuz; Bisita gidatu ezberdinak planteatu indusketa edo ikerketa bukatzerakoan edo behin-behineko erakusketa edo museo txiki bat pentsatu herrian bertan instalatzeko; jendearen “feedback”a jaso uneoro, ideia berriak biltzera begira eta honekin lotuta, herriko elkarte eta eragile ezberdinekin harremanetan egon, edukiaren hedapenerako eta profil ahalik eta zabalenetara hedatzeko.

Leku eta monumentu arkeologikoak jendearengandik banandu badira, berregin egin behar dira, arkeologia, lekuak eta jendearen artean loturak aurkitzeko. Zeregin horretan, beharrezkoa da arkeologiaren irisgarritasun unibertsalaren alde egitea, ez soilik aspektu ekonomikoan baizik eta sozialean ere (adibidez, egindako ikerketa guztiaren itzulpenak bertako hizkuntzara moldatzea edo tokiko erakarpen-programak sortzea berreraikitze historikoko taldeen eta parte hartzeko lantegien bidez), lankidetzazko praktika arkeologiko eta etnografikoak garatzea, bertako biztanleak zuzenean inplikatzen, eta baita arkeologoek zuzeneko inplikazioa lortzea tokiko bizitza eta inguruko jendearen eguneroko bizitza hobetzera bidean.

8. BIBLIOGRAFIA

- ALMANSA SÁNCHEZ, J. (2013): *Arqueología pública en España*. Madrid, JAS Arqueología Editorial.
- BASTERRETXEA MORENO, A. (1997) Artekale 22, Arkeoikuska 96. Eusko Jaurlaritza/Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz.
- BENGOTXEA REMENTERIA, B. (2021): Proyecto de intervención arqueológica en “plaza nagusia” de la villa de Otxandio, Bizkaia (Fase 3), Departamento de Geografía, Prehistoria y Arqueología (UPV-EHU). (Argitaratu gabea)
- BENGOTXEA REMENTERIA, B. (2020): Plaza Nagusia, Arkeoikuska 19, Eusko Jaurlaritza/Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz.
- CARVAJAL CASTRO, A., ET AL. (2011): *El síndrome de Indiana Jones*. Estrat Crític: Revista d'Arqueologia, 5. zbk., UAB, Barcelona.
- MARTÍNEZ RUEDA, F. (1992): Otxandio, Historia eta Monumentu ondarea. Bizkaiko Foru Aldundia.
- MOSHENKA, G. (2017): *Key concepts in public archaeology*. UCLPress.
- GONZÁLEZ RUIBAL, A., AYÁN VILA, X. (2018): *Arqueología: una introducción al estudio de la materialidad del pasado*. Madrid, Alianza editorial.
- RENFREW C., BAHN P. (2005): *Arqueología, conceptos clave*, Akal, Madrid.
- RUIZ ZAPATERO, G. (2012): *Presencia social de la arqueología y percepción pública del pasado*.
- SANTAMARINA, J., AYÁN, X., HERRERO, X. (2017): “*El proyecto Monte de San Pedro 1936-1937 (Araba, Euskadi)*”, *Trabajos de Arqueología Navarra, Arqueología, patrimonio y comunidad*, 29. zk.

- PEREDA GARCÍA, I., CAJIGAS PANERA, S. (2002): Estudio histórico artístico de la villa de Otxandio, Arkeoikuska 01, Eusko Jaurlaritzza/Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz.
- PEREDA GARCÍA, I. (2008): Artekale 14, Arkeoikuska 07, Eusko Jaurlaritzza/Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz.
- PEREDA GARCÍA, I. (2007): Calles Artekale, Urigoiena, Uribarrena. Arkeoikuska 06, Eusko Jaurlaritzza/Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz.
- PEREDA GARCÍA, I. (2009): Carnicería 9-11, Arkeoikuska 08, Eusko Jaurlaritzza/Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz.
- PEREDA GARCÍA, I. (2012): Plaza Andikona y solar nº5, Arkeoikuska 11, Eusko Jaurlaritzza/Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz.
- PEREDA GARCÍA, I. (2016): Plaza nagusia, Arkeoikuska 15, Eusko Jaurlaritzza/Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz.
- PEREDA GARCÍA, I. (2006): Red de distribución de gas propano (Otxandio), Arkeoikuska 05, Eusko Jaurlaritzza/Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz.
- QUEROL, M. A. (2010): Manual de gestión de patrimonio cultural. Akal, Madrid.
- QUIRÓS, CASTILLO, J.A. (2013): La materialidad de la Historia. La arqueología en los inicios del siglo XXI, Akal, Madrid.
- RODRIGUEZ CALLEJA, R. (2019): Iglesia de Santa Marina, Arkeoikuska 18, Eusko Jaurlaritzza/Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz.
- VINCENT, J. (2007): La arqueología a comienzos del siglo XXI. Ciencia, tecnología, valores y sociedad. XII Jornadas de Estudios sobre Lanzarote y Fuerteventura: celebradas en Arrecife, Cabildo insular editorial, Lanzarote.

WEB BALIABIDEAK:

- 1. Mapa: <https://www.otxandio.eus/eu-ES/Udala/HAPN/Orriak/default.aspx>
- Arkeoikuska: <https://www.euskadi.eus/web01-aparkeo/es/y47aIntegraWar/PUConsultaController/inicioMosaico?pageSelected=&idioma=&filtroTextolibre=0&textolibre=&filtroPbltitulo=0&pbltitulo=&filtroPblano=0&pblano=&txtProvinciaPub=Bizkaia&provinciaPub=48&txtMunicipioPub=Otxandio&municipioPub=072>

9. ERANSKINAK

1) Inkesta

OTXANDIOKO ONDARE HISTORIKOA. INKESTA

Adina:

Lanbidea:

Udalerria:

Ohitura daukazu bisita gidatuetan parte h (orokorrean)? artzeko edota museoetara joateko

Bai / Ez

Egin duzun bisita gidatuari buruz, baloratu (1 txarto, 5 bikain)

Indusketara bisita interesgarria izan da	1	2	3	4	5
Azalpenak argiak eta egokiak izan dira	1	2	3	4	5
Bisitaren iraupena egokia izan da	1	2	3	4	5
Eguna eta ordutegiak egokiak izan dira	1	2	3	4	5
Herriko ondare arkeologikoari eta historiari buruz zerbait berria ikasi dut	1	2	3	4	5
Iruzkinak					

Otxandioko ondare historikoari buruz (1 txarto, 5 bikain)

Ezagutzen dut Otxandioko ondare historikoa eta beraren inguruan egiten diren lanak	1	2	3	4	5
Interesa daukat baina ez dut aukerarik ondo ezagutzeko	1	2	3	4	5
Ondare historikoa interesgarria da eta zaindu eta babestu egin behar da	1	2	3	4	5
Ondarea eta Historia ezagutzeko herrian egiten diren ekintzetan parte hartzen dut (hitzaldiak, bisita gidatuak..)	1	2	3	4	5
Iruzkinak					

Zeintzuk izan daitezke biderik onenak ondare historikoa ezagutarazteko

Erakundeek bultzaturiko inizatiba eta iharduera ezberdinak (bisitak, museoak...)	1	2	3	4	5
Interes propioz irakurritako liburu edo testuak	1	2	3	4	5
Proiektu herrikoiak	1	2	3	4	5
Iruzkinak					

Zein uste duzu dela, orokorrean, ondare historikoa herritarrengana heltzeko modua

2) Otxandioko hirigune historikoaren babespen mailak



DENOMINACIÓN

- 1 Iglesia de Santa Marla
- 10 Udaletxea
- 54 Bolatoki



DENOMINACION

- 35 Urbarrena kalea nº 22
- 4 Nagusla Emparantza nº2
- 25 Cruz de término en Urbarrena kalea
- 55 Frontón
- 56-58 Pasos cubiertos de planta baja a modo de cantón



DENOMINACION

- | | |
|---|--------------------------------|
| 3 Casa Nagusla Enparantza 12 | 59 Casa Urbarren 1 |
| 4 Casa Nagusla Enparantza 2 | 60 Casa Urbarren 3 |
| 5 Casa Nagusla Enparantza 8-10 | 61 Casa Arrabal 8 |
| 6 Casa Nagusla Enparantza 5 | 62 Casa Urbarren 4 |
| 7 Casa Nagusla Enparantza 4 | 63 Casa Urbarren 6 |
| 8 Casa de Cultura Plaza Nagusla 6 | 64 Casa Urbarren 12 |
| 11 Casa Nagusla Enparantza 3 | 65 Casa Urbarren 14 |
| 13 Casa Artekale 9 | 66 Casa Urbarren 16 |
| 14 Casa Artekale 12 | 67 Casa Urbarren 18 |
| 15 Casa Artekale 9 | 68 Casa Nagusla Enparantza 9 |
| 16 Casa Artekale 14 | 69 Casa Nagusla Enparantza 11 |
| 17 Casa Artekale 11-13 | 70 Casa Nagusla Enparantza 13 |
| 18 Casa Artekale 16 | 71 Casa Nagusla Enparantza 16 |
| 19 Casa Artekale 24 | 72 Casa Artekale 2 |
| 20 Casa Artekale 21-23 | 73 Casa Artekale 6 |
| 21 Casa Artekale 25 | 74 Casa Artekale 8 |
| 22 Casa Artekale 27-29 | 75 Casa Artekale 10 |
| 23 Casa Artekale 31-33 | 76 Casa Artekale 28 |
| 24 Casa Artekale 35 | 77 Casa Artekale 30 |
| 26 Casa Carnicería 9-(nueva numeración 7) | 78 Casa Artekale 7 |
| 29 Casa Carnicería 2 (derribada) | 79 Casa Artekale 19 |
| 31 Casa Plaza Andikona 2-3 | 80 Casa Artekale 3 |
| 32 Casa Urlogena 8 | 81 Casa Artekale 15 |
| 33 Casa Urlogena 10-12 | 82 Casa Artekale 17 |
| 36 Casa Urbarrena 24 | 83 Casa Artekale 37 |
| 37 Casa Urbarrena 26-28 | 84 Casa Artekale 1 (derribada) |
| 38 Casa Arrabal 2 | 87 Casa Urlogena 7 |
| 42 Casa Artekale 18 | 88 Casa Urlogena 14 |
| 48 Puente Campo Santo | 89 Casa Urigoiena 5 |